



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko azaroaren 19an

119 ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gorteek Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika gaitzesten dute. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Erriberan bertaratzeko unibertsitate-ikasketak ezartzea nahi duela. Unión del Pueblo Navarro, Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Nafarroako Demokraten Elkargunea eta Askotariko Parlamentuko taldeek aurkeztu dute (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Tuteran Foruzaingoak polizia-etxe bat irekitzeari buruzkoa, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egin (6. or.).
- Galdera, Biztanle baztertuen aldera egiten den etxebizitza politikari buruzkoa, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak egin (8. or.).
- Galdera, Haur hezkuntzako hileroko ordainketei aplikaturiko murrizketei buruzkoa, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egin (9. or.).
- Galdera, Tuterako Gaztambide antzokia zaharberritzeko lanak geldirik egoteari buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egin (10. or.).
- Galdera, Felipe Borboikoak Nafarroara eginiko bisitaren kostu ekonomikoari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egin (11. or.).
- Galdera, Espetxeen arloko politikaren funtsezko irizpideak ezarriko dituen eztabaida publikoari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egin (12. or.).
- Galdera, Kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko egin diren kudeaketei buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egin (12. or.).
- Galdera, Zenbait lanposturi erabateko dedikazioaren araubidea atxikitzeari buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egin (13. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gortek Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika gaitzesten dute

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gortek Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika gaitzesten dute".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Talde parlamentario honek egiaztatu duenez, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika atzera egiten ari da. UPNren politika hori tentsioa eta konfrontazioa eragiten ari da gizartean. Ez dago hitz eder eta argumentuen beharrik, ugariak baitira hori berresten duten gertakariak:

– Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiko agintariek haien karguak utzi zituzten 2000ko ekainean. Pertsona horiek esan zuten Gobernuak haien lanetan eginiko presioek ez zietela zituzten eginkizunak betetzen uzten.

– Euskararen erabilera administrazioan arautzen zuen 1994ko Foru Dekretua aldatu egin zen 2000ko abenduan. Horrela, UPNk Euskarari buruzko legea eztabaidatzen ari zenean defenditu zituenak, Parlamentuak onetsi ez bazituen ere, dekretu bidez ezarri dira. Horren ondorioz, praktikan desagertu egiten da eremu mistoa eta eremu ez euskalduna bihurtzen da.

– Eusko Ikaskuntzari ematen zitzaion dirulaguntza eten egin zen 2001eko urtarrilean.

– Udako Euskal Unibertsitatearekiko hitzarmena eten egin zen.

– Seinaleak eta errotuluak aldatzeko jarduketa plana 2001eko otsailean; horrek nahasmendu handia eragin du eta, gutxinaka-gutxinaka, elebiz zeuden errotuluak gaztelania soilean daudenekin ordeztzea.

– NUPi dagokionez, Euskarari buruzko legea aldatuko dutela jakinarazi zuen 2001eko urrian Gobernuko Lehendakariak, unibertsitate hori eremu mistotik eta nafar guztiei zerbitzua ematetik salbuetsita gera dadin.

– 203/2001 Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa. Agertzen du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostu diren euskara jakin behar-rekoak. Dekretu hori dela eta, euskararik ez dakien eskolazain bat helduen euskalduntze ikasketxeetara sar daiteke lanera, edo D ereduko ikasketxeetara.

– Nafarroako Gobernuak Orkoiengo Udalari ukatu egin zion izena aldatzeko baimena; Gobernuko behar zen zerbitzuaren oniritzia jaso zuen udalak. Orcoyen izenaren ordezkari Orkoiarren jarri nahi zuen udalak, 2000 urtean Gobernuak baimena eman baitzuen Vidaurreta Bidaurreta izan zedin.

– Euskara sustatzeko funtsen transferentzia egin zen, horiek beste zeregin batzuetan erabiltzeko.

Hitz batean, talde parlamentario honek, Nafarroak euskara berezkoa duela irizten dienez eta euskara komunikazio tresna dela, uste du hizkuntza hori ez dela erabili behar eraikuntza nazionalaren erreferentziatzat ezta abertzaleen aurkako politikaren erreferentziatzat ere.

Horiek horrela, hona erabaki proposamena:

– Nafarroako Gorteek Nafarroako Gobernuak euskararen arloan duen hizkuntza politika gaitzesuten dute.

– Nafarroako Gorteek Nafarroako Gobernuak premiatzen dute indarrrik gabe utz ditzan 2000ko abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua –Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen du– eta horren ondotik emaniko planak.

– Nafarroako Gorteek Nafarroako Gobernuak premiatzen dute indarrrik gabe utz dezan uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretua –agertzen du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak.

Iruñean, 2001eko azaroaren 1ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, behar den Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Mozioa

Gutxiengo etnikoak Nafarroan gizarteratzeko prozesuak eman dituen 20 urteetan, esan behar da ahaleginak egin direla, zalantzarik gabe; horretan gehien aritu dira, batetik, gizarte-erakundeak, eta, bestetik, zenbait profesional, gizarteratze-programak gauzatzeko lanean esku hartu dutenak; programa horietan hezkuntzak zeregin funtsezkoa eta erabakigarria dauka etorkizunari begira jarrera pertsonalak eta gizarte-jokabideak garatu ahal izateko.

1978ko Konstituziotik aurrera, eta 80ko hamarkadan zehar, Estatuko legediari arau-multzo bat gehitu zaio, gizabanakoen arteko berdintasuna eta jaiotza, arraza, erlijio edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialen ondoriozko bazterkeriarik eza ezagutuak izan daitezzen. LOGSEk ere printzipio horiek jaso ditu, eta xede du giza hezkuntza integrala erdiestea, oinarrian ezberdintasunekiko errespetua izan den duena, halatan gizarte zuzenagoa eta bateginagoa lortzeko, bakearen, errespetuaren eta ezberdintasunaren onarpenean eraikia. Horrela, XXI. mendeko gizarte berria ikasgeletan prestatzeko ahalegin bat abian da. Esparru horretan, hezkuntza-integrazioa giltzarri da gizartearen baitako bizikidetasun baketsua erdiesteko; izan ere, kontuan

hartu behar da Nafarroako gizarte berria gizarte interkulturala eta arraza anitzekoa dela.

Integraziorako, beharrezkoak dira ahalegin pertsonal eta kolektiboak, eta horien euskarria, batetik, gobernu eta administrazio publikoen borondate politikoa da, eta, bestetik, baliabide ekonomikoak, horiek eskueran edukiz ikasgelaren barnean integrazioa erritmo ezberdinetan eta jakintza eta kultura ezberdinak aintzat hartuz egin dadin. Helburua da guztiek oinarritzko garapen pertsonala lortzeko aukera izan dezatela, etorkinunari aukera-berdintasunetik abiatuz aurre egiteko. Kontzeptu horren barnean, gutxiengoek egokitze-ahaleginak nahitaez pareko erantzuna izan behar du, gizarte-onarpenari eta irakasle nahiz espezialisten laguntzari dagokionez, ezberdintasunarekiko errespetuaren eta kulturek nahiz bizitza ulertu eta bizitzeko modu ezberdinek ematen duten aberastasuna balioestearen bidetik eramateko hezkuntza-integrazioko prozesuak.

Ikasgela da biharko gizon-emakumeek gizartean elkarrekin bizitzeko egiten duten lehen saiakuntza. Garrantzitsua da hezkuntza oinarritua egotea bakea, bizikidetasuna eta ezberdintasun sozial, kultural eta pertsonalekiko errespetua bezalako balioetan. Integrazioari dagokionez egin diren okerretako bat da ahalegina gutxiengoek, eta ez gehiengoak, egin dezaten eskatzea, nahiz eta gutxiengoek jadanik ahalegin handia egin behar izaten duten euren egoera gainditu eta integrazioa –lehendabizi, hezkuntzaren esparruko integrazioa, eta, gero, gizarte-integrazioa– lortzeko bidean hain beharrezkoa den espazio hori eskuratzeko. Beste oker bat da hezkuntza-administrazioek agertu duten ikusmolde ekonomizista; izan ere, haiek erabakitako antolaketa neurriak honetan gauzatu dira: ikasgelak bereizi eta gutxiengoetakoak diren ikasleak, edo ikasle “desberdinak”, ikastetxe jakin batzuetan, gehienak publikoak, biltzea.

Oker horien zergatia borondate politikoen gabezia nabarmena izan da: demokrazia berdintzaile baterantz joatea ez da onartu, eta gero eta baliabide ekonomiko eta giza baliabide gutxiago bideratzen dira aniztasuna zaintzeko. Gainera, ikastetxetzarren aldeko apustua egin da, eta horrek are gehiago oztopatu ditu hezkuntza-integrazioko prozesuak. Ikasleei oso goiz hausten dizkiete euren familiekin eta inguru sozialarekin dauzkaten loturak, eta, horregatik, haien errealitateetatik urrun egiten zaie jarraipena. Horrela iritsi gara gaur egungo eufemismo-erabilerara, non “integrazio” deitzen zaion ikasleak “laguntza-gelatan” bereizteari, “errekuperazio” eduki murriztuekin eta “hezkuntza-irizpideei” jarraikiz.

Ez litzaizkiguke harrigarri gertatu beharko azken urteetan izandako zenbait gertakari, hala nola ikasle ijitoak hiri-inguruneko ikastetxe batzuetara igortzea, aurreinskripzioetan haiek beste ikastetxe batzuetara desbideratzea, haien eskolatzeko goiztiarrerako gogogabetzea, ikasketa-prozesuaren jarraipenik eza, klasera joaten ez direnean utzikeriaz jokatzeko. Horren ondorioz suertatu den egoeran, ikasleek formalki matrikulatu besterik ez dute egiten, eta, lotsagarria bada ere, ikasle ijitoetatik %1 besterik ez da unibertsitatara iristen. Unzu-Txiki bezalako ikastetxe bat, zeinak ikasleen %100 ijitoak baititu, mantentzen segitzen dugu, eta ijitoen elkarrekin nahiz Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Nafarroako Sareak salatu dute Tuterako Elvira España ikastetxe publikoan lehen hezkuntzako 2. mailan ikasgela berezi bat sortu dela, bederatziko ikasle ijito, bi magrebiar eta ekuadortar bat metaturik dituen, eta haien eskola-materialak “gutxiengo etnikoak” espresioa markatuta dauka. Ikasgela horretan, asmo teorikoa ikasle horiek hezkuntzan bideratzea da, zenbait eduki alde batera utzita (adibidez, ingelesa, ikastetxe horretan berriki ezarrita dagoena).

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Erabaki proposamena

1)- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte-, kultura- edo familia-egoerarengatik hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleak, gutxiengo etnikoetakoak eta etorkinak diren ikasleak hiri-ikastetxe zehatz batzuetan eta “laguntzako” deitzen zaion ikasgela paraleloetan biltzea antolaketa-neurri iraunkor gisa aintzat hartzen duen hezkuntza-politika alda dezan.

2)- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Bazterkeriaren aurkako Planean onetsitako aniztasun-zaintzako neurriak abiaraz ditzan eta hezkuntza-baliabide teknikoak nahiz giza baliabideak bidera ditzan curriculumaren egokitzapenerako eta ikasle bakoitzaren jarraipenerako. Halaber, familian nahiz ingurune sozial eta kulturean behar-egoeran egoteagatik hezkuntza-premia bereziak ditzuten ikasleak integratzeko eta ikasgela arruntean eta eskola-ingurunean egokitzeko aparteko laguntzak bidera ditzan.

3)- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du derrigorrezko hezkuntzako zikloetan itunpeko ikastetxe publiko eta pribatu gertatzen ari diren egoerak azter ditzan. Izan ere, sozial edo kulturalki egoera behartsuan dauden ikasleak ikasgela berezi edo laguntzakoetan

biltzen ari dira, eta horrela bereizitako ikasle batzuei eragotzi egiten zaie hezkuntza-programa arruntetan eta berriki sortuetan (hala nola atzerriko hizkuntzak ikastekoak) parte hartzea, eskola-atzerapena gainditzeari buruzko argudioa erabiliz,

bereziki Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan.

Iruñean, 2001eko azaroaren 5ean.

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Erriberan bertaratzeko unibertsitate-ikasketak ezartzea nahi duela

UNION DEL PUEBLO NAVARRO, SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA, IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA, NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA ETA ASKOTARIKO PARLAMENTUKO TALDEEK AURKEZTUA

Unión del Pueblo Navarro, Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Nafarroako Demokraten Elkargunea eta Askotariko Parlamentuko taldeek ondoko mozioa aurkeztu dute: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Erriberan bertaratzeko unibertsitate-ikasketak ezartzea nahi duela".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Beheran sinatzen dugunok, Nafarroako Parlamentuko talde parlamentarioen eledunak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikularen babesean, hurrengo mozioa aurkeztu dugu:

1- Nafarroako Parlamentuaren borondatea da ezar daitezela Nafarroako Erriberan, NUPen mende, bertaratzeko unibertsitate-ikasketak. Horretarako aplikatu beharreko unibertsitate-ereduak gizaritari prestakuntza unibertsitarioa eman beharko dio; horrek eskualdeko maila kulturala handitzen lagunduko du eta garapen ekonomikorako ere lagungarri izanen da.

2.- Nafarroako Parlamentuak NUPeko gizariekontseiluari eskatzen dio ikasketa horiek ezartzeko konpromisoa har dezala; izan ere, hori da Nafarroako gizariek parte hartzen duen organoa, gizariek behar eta kezken eta akademiaren arteko elkargune izaten saiatzen dena.

3.- Nafarroako Parlamentuak NUPeko gobernu batzordeari eskatzen dio aintzat har dezala unibertsitate-ikasketak Erriberan hurrengo 2-3 urtetan gehien jota jartzeko aukera; halaber, zenbatu dezala beharrezko inbertsioek zenbat eginen duten, eta konpromiso hori jaso dezala ekintza-planean.

Iruñean, 2001eko urriaren 30ean

Eledunak: Alberto Catalán Higuera, Juan José Lizarbe Baztán, José Miguel Nuin Moreno, Juan Cruz Alli Aranguren eta Milagros Rubio Salvatierra

F saila:
GALDERAK

Tuteran Foruzaingoak polizia-etxe bat irekitzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 12an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M ^a Taberna Monzón jaunak Tuteran Foruzaingoak polizia-etxe bat irekitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.	1999 2000 2001	364,0 195,0 280,0
---	----------------------	-------------------------

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dut, idatziz erantzun dadin:

Parlamentuak 1994ko ekainaren 28an onetsitako Nafarroako Foruzaingoaren antolaketa eta eginkizunei buruzko Plan Zuzentzailean ezartzen zen Foruzaingoa 1995 eta 1997 bitartean hedatuko zela Erriberara, eta, horretarako, Tuteran polizia-etxe bat eginen zela. Hura eraikitzearen kostua 155.198.000 pezetakoa izanen zela kalkulatu zen garai hartan.

Urtez urte, Nafarroako Aurrekontu Orokorren zenbait aurrekontu-ekitalditan zenbateko hauek izan dituzten kontusailak bideratu dira Tuteran polizia-etxea egiteko (lehen bi urteetan "obrak parkeetan" kontusail orokor gisa, Iruña eta Tuterari dagokienez ulertuta):

Urtea	Pezetak, milakotan
1995	217,1
1996	200,0
1997	100,0
1998	203,4

1997tik 2001era arte, aurrekontuetan sartutako kontusail horien ezaugarri bat zen handitu zitezkeela. Alabaina, obren erritmoa dela-eta, aurreikusitako gastua baino handiagorik ez sortarazteaz gain, aurreikusitako kopuruak, dirudienez, ez dira betetzera iritsi. Hala adierazi zuen Kontuen Ganbarak, "Foruzaingoa, 1998ko ekitaldia" aurrekontu-programari buruz egin zuen fiskalizazio-txostean (Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala, 7. zenbakia, 1999ko urriaren 5ekoa); hain zuzen ere, bertan azaltzen zuen ezen, ekitaldi hartarako aurrekontuetan jasotako 203,4 milioietatik, 24 besterik ez zirela bete. Obrak gauzatzean izandako atzerapena azaltzeko, aipatzen zuen polizia-etxerako hasiera batean ezarritako kokalekua aldatzea erabaki zela, eta Tuterako Udalak eta Herrilan Departamentuak hitzarmen bat sinatu zutela hiriaren sarbideak birmoldatzeko, Tarazonako errepidea barne, zeinaren ondoan eraikiko baita polizia-etxea. Txosten horretan bertan, obra horiek eta Iruñean polizia-etxe nagusia eraikitzeak nola egiten ari ziren ikusirik, honako gomendio hauek biltzen ziren: "Gure gomendioa da proiektuak egokiro gainbegiratzea, haien kalitatea bermatu eta geroan obra aldaketak egitea ahal den neurrian ekiditearren, bai eta erantzukizunak eskatzea proiektuak egin dituztenei baldin eta aldaketak proiektuetan egindako akats edo kalitate ezari zor bazaizkio"; "Orobat gomendatzen dugu espediente zentralizatu bat, Atalak egiten dituen obra guztiei buruzko dokumentazioa biltzen duena, ezartzea".

Plan Zuzentzaileak eta aurrekontuei buruzko legeek ezarritakoa gorabehera, eta jadanik 1996ko maiatzaren 31n Tuterako Udalak herrilurretako 10.655 metro koadro desafektatu eta Nafarroako Gobernuari lagatzea, polizia-etxea eraiki behar zen lursailari gehitzeko, erabaki zuen

arren (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 76. zenbakia, 1996ko ekainaren 24koa), obren kontratazio-espeditatea ez zen 1998ra arte hasi (irailaren 23ko 1180/98 Ebazpena, Barne zuzendari nagusiarena, Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 118. zenbakia, 1998ko urriaren 2koa), prozedura murriztuaren bitartez, hain zuzen ere; zehazki, presako enkante bitartez. Horren aurrekontua 541.861.049 pezetakoa izan zen, eta, egiteko epea, 24 hilabeteakoa. Diru-kopuruak honela egotzi zitzaizkion denbora-epe bakoitzari:

1998: 118.273.498 pezeta.

1999: 287.183.746 pezeta.

2000: 136.403.805 pezeta.

Barne zuzendari nagusiak azaroaren 13an emandako 1427/1998 Ebazpenaren bitartez, eraikuntza-obrak "Constructora Hispánica, S.A." enpresari esleitu zitzaizkion. Esleipen-prezioa 424.927.430 pezetakoa izan zen (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 30. zenbakia, 1999ko martxoaren 10ekoa); alegia, hasierako prezioarekiko %20 baino gehiagoko beherapena zuela.

Dagoeneko hiru urte igaro dira obrak esleitu zirenetik, baina oraindik haiek bukatu izanaren berririk ez dago, nahiz eta pentsatzekoa den berehala bukatuko direla, Ekonomia eta Europako Gaietarako zuzendari nagusiak xedatu baitzuen (maiatzaren 31ko 356/2001 ebazpena, Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 69. zenbakia, 2000ko ekainaren 6koa) zenbait hornidura kontratatu behar zirela; zehazki, altzariak erosi eta instalatu behar zirela. Horiek Tuterako Foruzaingoaren polizia-etxean entregatzekoak dira. Dena den, destinoa bertan izanzen duten foruzainak hautatzeko beha-

rrezkoak diren urratsak eman izanari buruz ez dago oraindik albisterik. Eta, ikusirik Nafarroako Aurrekontu Orokorretan zazpi ekitalditan zehar mila milioi pezeta baino gehiago bideratu direla horren erdia ere kosta beharko ez lukeen obra baterako, zilegi da amaierako kostua zenbatekoa izan den galdetzea.

Hori guztia dela-eta, honako galdera hauek egin zaizkio Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari:

1. Nafarroako Gobernuak aurreikusita al dauka Tuterako Foruzaingoaren polizia-etxerako obrak noiz bukatuko diren eta polizia-etxea noiz hasi ahalko den funtzionatzen?

2. Zer arrazoi direla-eta atzeratu da hainbestetan Tuterako polizia-etxearen abiarazpena, eta, bereziki, zergatik ez da bete eraikuntza-obrak egiteko 24 hilabete epea?

3. Zer neurri hartu dira, halakorik hartu bada, "Foruzaingoa, 1998ko ekitaldia" aurrekontu-programari buruz Kontuen Ganbarak eginiko fiskalizazio txostenean gai horren gainean eginiko gomendioak betetzeko?

4. Obra-proiektuan aldaketak egin baldin badira, zein izanen da horiek amaieran izanzen duten kostua? Zeren ondoriozkoak dira aldaketa horiek?

5. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du zer prozeduraren bitartez hautatuko diren destinoa Tuterako polizia-etxean izanzen duten foruzainak? Noiz egingen da prozesu hori?

Iruñean, 2001eko urriaren 31n

Foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón

Biztanle baztertuen aldera egiten den etxebizitza politikari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FERNANDO VIEDMA MOLERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 12an egindako bilkuran, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak Biztanle baztertuen aldera egiten den etxebizitza politikari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dut herritar baztertuentzako Nafarroako Gobernuak egiten duen etxebizitza-politikari buruz.

Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Nafarroako Sareak Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordean adierazi zuen kezka handia duela etxebizitza sozial gutxi eraikitzen ari delako; hain zuzen ere, hori dela-eta etorkinek gizarteratzeko zailtasun handiagoak dauzkate. Horixe da, gainera, herritar baztertuek daukaten arazo larriena. Kontuan hartu behar da, bestalde, 2000ko bukaeran 14.470 etorkin zeudela erroldatuta Nafarroako Foru Komunitateko udaletan.

Esan bezala, Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Nafarroako Sarea joan den urriaren 31n agertu zen batzordean, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eskatuta, hain zuzen ere gizarte bazterkeriaren aurkako foru planaren betetzeari buruzko iritzia emateko. Hari buruzko oso balioespen kritikoa egin zuten, plana onetsi eta bi urtetara neurri asko eta asko ez direlako abian jarri. Ondokoak azpimarratu zituzten, besteak beste: oinarritzko errentari buruzko programaren ebaluaziorik ez egotea; lanerako prestakuntza eta enplegua; etxebizitza; osasuna, eta hezkuntza.

Sareko ordezkariak adierazi zuten etxebizitza sozial gutxi eraikitzeak oztopo handiak jartzen dituela plan horretan etxebizitzari buruz jasotako neurriak praktikan jartzeko. Bada, 2000. urtean, araubide bereziko alokairuko 46 etxebizitza baizik

ez zen eraikitzen hasi; urte berean eta Foru Komunitate osoan, era horretako 140 etxebizitza bukatu ziren, haietako 24 Iruñean. Planak, ordea, 1999-2000 aldian araubide bereziko babes ofizialeko alokairuko 600 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zuen.

Sareko ordezkariak galdetu zuten ea Gobernuak neurri zuzentzaileak hartu behar dituen 2001-2004 urteetarako etxebizitza planean hala-berri berriz ez gertatzeko.

Halaber, Sareko ordezkariak parlamentarioi gogorarazi ziguten "Gizarte Bazterkeriaren aurkako Planaren Jarraipen Batzordeak" etxebizitzari buruz hartutako erabakia (batzorde hori 1999ko azaroaren 3ko 190. Foru Aginduaz izendatu zen), hain zuzen ere 2001eko ekainaren 19an eginiko bilkuran hartutakoa:

Errealitate hau Foru Parlamentuari, Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari helaraztea, ondoko helburuekin:

-Erosteko nahiz alokatzeko araubide orokor eta bereziko babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza benetan sustatuko duen etxebizitza politika bat taxutu dadin exijitzea.

-Iruñerria bere osotasunean kontuan hartuko duen etxebizitzetarako eta zerbitzuetarako lurzoruari buruzko politika bat presta dadin exijitzea, alde batera utzita tokiko politika-molde hertsia, biztanleen benetako beharrek bat ez datozenak (maiz, bizilekua eta lana Iruñerriko herri ezberdinetan izaten baitituzte).

-Politika horren alde lan gehien egiten duten toki entitateei, Nafarroako Gobernutik datozkien laguntza eta transferentzietan onura batzuk eskaintzeko proposatzea.

-Foru Parlamentuari, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari eta toki entitateei, babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lurzorua gordetzeko eginiko ahaleginetan, babes osoa ematen diegula adierazi nahi dugu.

Etxebizitza lehen mailako arazoa da Nafarroako herritar askorentzat; herritar horiek ikusi dute nola etxebizitza bat eskuratzeko eskubide konstituzionala ez dagoen botere publikoek bermatuta, batez ere diru ahalmen gutxien duten kolektiboentzat (haien artean, etorkinak).

2001-2004 urteetarako etxebizitza planak, azkenean Parlamentura eztabaida dezan igorriko

denak, ez du eskubide hori bere osotasunean bermatzen, ez baitu behar adina jasotzen gure komunitatean etxebizitza babestua eskuratzeko dagoen eskari zabala.

Hori dela eta, ondoko galderak egin nahi ditugu:

1. Ba al du Nafarroako Gobernuak 2001-2004 urteetarako etxebizitza planean BOEak eraikitze-ko aurreikuspenen goranzko berrazterketa egiteko borondaterik, hain zuzen ere Nafarroan bizi diren

herritar guztiek etxebizitza eskuratzeko beharrak asetzeko?

2. Zer egin behar du Gobernuak sortu berri den Lurzoru Publikoaren Foru Bankua orubez betetzeko, Sarrigurenen Nafarroako Gobernuak 1991n erosi zituen lurra edo banku hori sortu aurretik Iruñeko Udalarekin hitzarturiko Buztintxuri eta Arrotxapeako lurra kontuan hartu gabe?

Iruñean, 2001eko azaroaren 5ean.

Foru parlamentaria: Fernando Viedma Molero

Haur hezkuntzako hileroko ordainketei aplikaturiko murrizketei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 12an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak haur hezkuntzako hileroko ordainketei aplikaturiko murrizketei buruz egindako galderaren biderape-na onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin dut, idatziz erantzun diezadaten.

0 eta 3 urte bitarteko Haur Hezkuntzak, azken urte honetan, horretarako asmoa erakutsi duten herri txikietan egin duela bereziki aurrera esan dezakegu lehen begi kolpean eta zer dagoen ikusita; horretarako, Nafarroako Gobernuarekin hitzarmenak egin dituzte, zeinak haurtzaindegiez ari dela uste baitu oraindik, eta ez behar zehatzak eta kostu jakina dituen hezkuntza tarteaz.

Etxea teilatutik eraikitzen hasi da; Nafarroak ez du alde aurretik araurik onetsi, eta, hori egin behar zuen: gutxienez ere, 1004 Errege Dekretuak Hezkuntzako lehen ziklorako ezarritakoa

bereganatu eta irizpide homegeneoak, kalitate-espezialista- eta ratio-eskakizun berdinak, eta hezkuntza tarte hori finantzatzeko modua ezarri. Ez da harrizkoa udalek irizpide baturik ez izatea eta nahastuta ibiltzea eskolen sorrerari eta horiek eusteko moduari dagokienez, eta, baita beste alderdi garrantzitsu batzuei dagokienez ere: emaniko hezkuntza eta zerbitzuaren edukia, eta eskola horien ikuskaketaren ardura norena den. Azken horietan irizpiderik ez izatea da kezkarriena Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batuentzat, eta alderdi horiei dagokienez eska daitezke, gure ustez, erantzukizunak. Hartu den ikuspegia, orain ere, haurzaintza soilarena da, eta, Nafarroan, bai Gobernuak bai Iruñeko Udalak dituzte hezkuntza-ereduaren aldetik erreferentzia bilakatu diren haur eskolak; eredutzat hartu eta gainditu beharreko erreferentzia dira eta 0tik 3 urte bitarteko hezkuntza tarteak prestigioa du eta herritarren esker ona jaso du.

Finantzaketari dagokionez, toki entitateek, kostuaren % 25az gain, foru administrazioak bere gain hartzen ez dituen aparteko gastuak finantzatu beharko dituzte, eta hileko tarifa gisa 26.492 pezeta baino gehiago jasotzen badute, muga hori gainditzen duen diru kopurua itzuli egin beharko diete erabiltzaileei.

Aurrekontuen bidezko finantzaketa erabiltzen ari da maila altuko errenta ekonomikoa duten familiei 0tik 3 urte bitarteko hezkuntza tarte merkatzeko; familia horiek 50.000 edo 55.000 pezeta ordain litzakete. Zentzuak agintzen duena da, ordea, ezinezkoa bada lehen zikloko hezkuntza

doakoa izatea, gutxienez ere sistema progresibo bat aplika dadila errenta eta familia-egoeraren arabera, bermatuta gelditzeko gutxienez ere, horrela, errenta eta familia-egoera jakin bat dutenek doan izanen dutela hezkuntza hori, eta ordainketak, familien egoeren arabera, ahalik eta txikienak izanen direla.

Horregatik guztiagatik, hauek jakin nahi ditut:

1.- Haur bakoitzeko, 26.492 pezetakoa da gehieneko tarifa; zer murrizketa aplikatzen ari dira hilean, haur hezkuntzan, kontuan hartuta familieren ahalmen ekonomikoa, seme-alaben kopurua, familiak guraso bakarrekoak izatea, norberak edo familia-unitateko norbaitek minosbaliotasuna izatea, aitaren edo amaren langabezia, eta gizarte

bazterkeria izateko arriskua? Orain aplikatzen ari direnak zehaztea nahi nuke.

2.- Aurreko galderan zehaztutako egoeraren batekin zerikusia izateagatik edo bestelako egoera txar batean egoteagatik, zer familia egoeretarako ari da bermatzen, Nafarroan, lehen zikloko haur hezkuntzaren doakotasuna?

3.- Zer epetan itzultzen zaie toki entitateei horiek 26.492 pezetako mugaren gaindi kobratutako diru-kopuruak itzultzeko aurreratzen duten dirua?

Iruñean, 2001eko azaroaren 6an

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Tuterako Gaztambide antzokia zaharberritzeko lanak geldirik egoteari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 12an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Tuterako Gaztambide antzokia zaharberritzeko lanak geldirik egoteari buruz egindako galderaren biderape-na onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José Andrés Burguete Torresek, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin diot Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezadan:

Tuterako Gaztambide antzokia zaharberritzeko lanak geldirik daude; Tuterako alkatearen arabera, enpresak "diru gehiago eskatzen du". Hasieran, kostua 476,5 milioikoa izanen zela aurreikusit

zen, nahiz eta lizitazioaren hasierako prezioa 519.688.212 pezetakoa izan.

Sustapen Ministerioak, Nafarroako Gobernuak eta Tuterako Udalak sinatutako finantzaketa-hitzarmenean, ezarri zen zein ziren administrazio bakoitzak ordainduko zituen ehunekoak. Nafarroako Gobernuak lanek guztira izanen zuten kostuaren % 30 hartu zuen bere gain; hasierako kostua 142,95 milioi pezetakoa zen eta ekitaldi bat baino gehiagotako aurrekontuetan izanen zuen eragina.

Obra gelditu eta seguruenik obraren prezioa garestituko egingen denez, hauek jakin nahi ditut:

1.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak Gaztambide antzokia zaharberritzeko lanak geldirik dardela uztailetik? Noiz izan zuen informazio horren berri?

2.- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak inongo neurririk adjudikazioa hartu zuen enpresaren aurka, obra eten eta hasieran aurreikusitako epeak betetzea zaila izanen delako?

3.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak noiz hasiko diren lanak, eta, orobat, zenbateko garestitzea eragin dezakeen adjudikazio-hartzailearekin sinatzen ahal den hitzarmen berriak?

4.- Noiz hitz egin da azkenekoz, egungo korapiloa askatzea helburu, Tuterako Udalarekin, Sustapen Ministerioarekin eta adjudikazioa hartu zuen enpresarekin?

Administrazioen artean sinatutako hitzarmenaren kopia eskatzen dut.

Iruñean, 2001eko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Felipe Borboikoak Nafarroara eginiko bisitaren kostu ekonomikoari buruzko galdera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 12an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Felipe Borboikoak Nafarroara eginiko bisitaren kostu ekonomikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

ddBatasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezazkion.

Azaroaren 6tik 9ra bitartean, Felipe Borboikoak Nafarroara bisita egin du bere segizio guztiarekin. Bisitak, duen konnotazio politikoa alde batera utzita —ez da hori galdera parlamentario honen gaia—, logikoa denez, Nafarroako diru publikoekin ordaindutako gastuak eraginen zituen; kostua, dudarik gabe, handi samarra izanen zen, zenbat egun egin dituen kontuan hartuta eta eginiko bisi-

ta instituzionalen programari erreperatzen badiogu.

Horiek horrela, talde parlamentario honek hauek jakin nahi ditu:

1.- Zer kostu izan du guztira Nafarroako diru publikoentzat Felipe Borboikoa eta bere segizio guztiak Nafarroara azaroaren 6tik 9ra bitartean egin duten bisitak? Hurrengo kontzeptuak zehaztuta nahi da:

- Gastu bakoitzaren kontzeptua (segurtasuna, lojamendua, bisita ofizialak, aparteko gastuak, bazkariak, afariak, dieta, etab.)

- Gastua ez bada oraino bete, ezta gastu gisa jaso ere kontuen egoera-orrietan, zehaztuta nahi da gastuaren aurrekontua, aurrekontu horretan gastuaren kontzeptu bakoitza adierazita.

- Gastu kontzeptu horietako bakoitza —hala eginak nola aurreikusiak— zein kontusaili egozten zaion.

2.- Nafarroako Gobernuak gastu guzti hori Estatuarentzako kupoa helburu duen kontusailari egozteko asmoa al du, horrela kontuak berdintzeko?

Iruñean, 2001eko azaroaren 7an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Espetxeen arloko politikaren funtsezko irizpideak ezarriko dituen eztabaida publikoari buruzko galdera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 12an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak espetxeen arloko politikaren funtsezko irizpideak ezarriko dituen eztabaida publikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galderak egin ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezazkion:

Iragan urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuko talde gehienek babesarekin onetsi zen Nafarroako Gobernua premiatzea eztabaida publiko bat egin dezan Nafarroako presoek kolektiboaren gizartratzea, integrazioa eta murriztea errazteko espetxe-politika bat gidatu behar duten oinarriko irizpideei buruz.

Orduan esaten zenez, talde politikoek, presoek kolektiboari laguntzen diharduten adituen, elkarten eta fundazioen, sindikatuen eta aztergai dugun arazoarekin lotura duten arloetan lan egiten duten gainerako gizarte-agenteen iritzia kontuan hartu beharko litzuke eztabaida horrek.

Kontuan izanda nahiko denbora iragan dela –hilabete inguru– Nafarroako Parlamentuak erabakia hartu zuenetik, gure talde parlamentarioak ondokoak argitu nahi ditu, ez baitu orain arte eztabaida hori izanaren berri izan:

1. Noiz egin asmo du Nafarroako Gobernuak Nafarroan espetxe-politika bat gidatu behar duten oinarriko irizpideei buruzko eztabaida publiko hori?

2. Zer departamentu arduratuko da/dira eztabaida hori taxutu eta egiteaz?

3. Nor aurreikusten da parte hartu duela eztabaida horretan?

4. Noizko aurreikusten da hasiko dela eztabaida? Noizko eztabaidaren ondorioak?

Iruñean, 2001eko azaroaren 8an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko egin diren kudeaketei buruzko galdera

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 12an egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko egin diren kudeaketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galderak egin ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezazkion:

Iragan urriaren 20an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuko talde gehienek babesarekin onetsi zen Nafarroako Gobernua premiatzea administrazio publikoetan beharrezkoak diren bideak jorra ditzan kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko.

Kontuan izanda nahiko denbora iragan dela –bi hilabete inguru– Nafarroako Parlamentuak erabakia hartu zuenetik, gure talde parlamentarioak ondokoak argitu nahi ditu:

1. Egin al du ezer Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuaren erabakia dela eta?
2. Zer egin du zehatz-mehatz?
3. Zein izan da egindakoaren emaitza?
4. Ezer egin ez baldin bada,

a. Zer eragotzi du ezer egitea?

b. Zer egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak?

c. Noizko, gutxi gorabehera, uste du Nafarroako Gobernuak bete ahalko dela Nafarroako Parlamentuak onetsitakoa?

Iruñean, 2001eko azaroaren 8an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Zenbait lanposturi erabateko dedikazioaren araubidea atxikitzeari buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 12an egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak zenbait lanposturi erabateko dedikazioaren araubidea atxikitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko azaroaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

ddlzquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen egitura eta plantilla organikoa hein batean aldatzen dituen urriaren 1eko 270/2001 Foru Dekretuak ezarrita (2001eko urriaren 22ko 128. NAO), zenbait lanpostu (hogeita hiru atalburutza, zortzi bulegoburutzeta eta bai hiru arkitekto lanpostu ere) disponibiltate osoko eta dedikazio oso eta erabateko araubidekoak izanen dira, hau da, dedikazio eskusiboan arituko dira eta horri dagokion osagarria eskuratuko dute.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategineko hirugarren xedapen gehigarriak aukera ematen badio ere bitarteko izendapenak egiteko, Nafarroako Gobernuak gehiegikeriaz erabiltzen du bide hori; foru administrazioan dauden atalburu eta bulegoburu guztiak horrela izendatu dira, eta merezimenduen lehiaketa bada ere prozedura arrunta, hori ez da sekula ere erabili; bitarteko betetze horiek, gainera, sistematikoki gainditzen dute ezarrita duten muga, hau da, urtebete. Burutzei osagarriak esleitzeak, halatan, inork nahi ez duen irudi itsusia eman dezake, hots, Gobernuak askatasun osoz izendatutako pertsonen zuzenean ematen diela diru hori. Kaltetu egiten da, horrela, administrazioaren funtzionamenduak behar duen objektibotasun irudia, eta funtzionarioen eta herritarren artean ideia asaldagarria hau zabal daiteke: osagarri horiek nahierara banatzen direla, zerbitzuak saritzeko edo adiskidetasun politiko edo pertsonalak direla medio, eta ez direla lanpostuaren eginkizunak zehaztu ondoren —lanpostuan nor dagoen alde batera utzita zehaztuta, betiere— horien arabera ematen. Burutza horien profesionaltasun eta duintasuna zalantzan ez badugu jartzen ere, nahitaezkoa da legezketasunaren printzipioa aipatzea, beste behin ere, administrazioaren jardunari dagokionez, bai eta zesarraren emazteari buruzko esaeraz adierazten den araua aipatzea ere.

Horiek guztiak horrela, hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariari egiten dizkiogun galderak:

1.- Zer irizpide jarraitu dira dedikazio esklusiboaren araubidea ezartzeko urriaren bateko 270/2001 Foru Dekretuak aipatzen dituen lanpostuei?

2.- Ba al da azterlan orokor edo partikularrik lanpostu horiei buruz eta dedikazio esklusiboa duten atalburutzek edo bulegoburutzek eginkuzunak betetzeko dituzten baldintzei buruz? Halakorik bada, nork egin du?, zer pertsona edo organok ezagutzen dute hori?

3.- Ba al du Nafarroako Gobernuak asmorik atalburutza eta bulegoburutza horiek, legeak agindu bezala, lehiaketa bidez betetzeko? Zergatik eusten zaie, arau gisa, eginiko bitarteko izandepenei?

Iruñean, 2001eko urriaren 8an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--